

# KONTUKANTARI 2

## MENDIAN IBILTARI

**KONTUKANTARI 2, Mendian ibiltari.** Ikuslego familiarrarentzako antzerki kontzertua txotxongiloekin.

**Iraupena** 50 min.

### **Sinopsi laburra**

***KONTUKANTARI 2-k** betiko euskal kankak eskaintzen dizkizue erritmo ezberdinetara eramanez; Txikiek ikas eta nagusiek ahaztu ez ditzaten.*

*Nanu, Granu eta Kanuto txango berri bat egiteko prestatzen ari dira. Arratsalde honetan, mendi tontor gainera igo behar dute, baina aldapeko sagarraren adarraren puntan aurkituko dute loretxo bat eta...TXIST! Baxuago abestu!! Haurtxo polita sehaskan dago zapi zuritan txit bero...*

### **Sinopsi luzea**

*Nanu, Granu eta Kanuto txango berri bat egiteko prestatzen ari dira. Arratsalde honetan, mendi tontor gainera igo behar dute, baina aldapeko sagarraren adarraren puntan aurkituko dute loretxo bat eta...TXIST! Baxuago abestu!! Haurtxo polita sehaskan dago zapi zuritan txit bero...*

"Kontukantari", txotxongiloekin egindako antzerki kontzertua, herriz herri, pozez bete gaituen proiektua izan da. Honi jarraikotasuna emateko, "**Kontukantari 2, Mendian ibiltari**" sortu dugu. Oroimenean ditugun beste hamar abesti berrikusten ditugu oraingoan: Haurtxo polita, Axuri beltza, Aldapeko, Ikusi mendizaleak, Loretxo bat, Baratze bat, Kolpe kolpeka, Guk euskaraz, Furra furra eta Arratsalde honetan.

Betiko euskal kankak erritmo ezberdinetara eramanez; nagusiek ahaztu ez ditzaten eta txikiek ikas ditzaten.

### **Laenanaranja**

Laenanaranja, titiriteroa bokazioz, Bilbon sortu zen 1999an, familia antzerki kritiko-konstruktiboa eginez egunerokotasunari aurre egin ahal izateko. Hamabost urteko ibilbide honetan, umeei hurbiltzeko biderik aproposena txotxongiloak direla ikusi dugu. Txotxongilo antzerki garaikidea egiten ahalegintzen gara, arte honen historian zehar beste sortzaile askok egindako lana ahaztu gabe.

Gure ibilbidean zehar mahai txotxongiloekin egindako trilogia nabarmenduko genuke: "Lolo; 215. Eskakizuna", "Imundo; Hesi-Puskatzailea", "Ma; Tren Taupadak".

"Kontukantari", txotxongiloekin egindako antzerki kontzertua, 2014ko abenduan aurkeztu genuen lehen aldiz.

Gure azken egitasmoa "Altzoko Handia", txotxongiloen opera izan da, Donosti 2016 eta Topic, Tolosako nazioarteko txotxongilo zentroarekin batera ekoiztua.

## **FITXA ARTISTIKOA**

**Abeslaria:** Sandra Fdez. Agirre / Aintzane Crujeiras

**Musikaria:** Roberto Castro "Boti"

**Txotxongilo eragileak:** Marta Alvarez  
Itziar Fragua / Leire Ucha  
Jon Koldo Vázquez / Iñigo Eibar

**Musika:** Roberto Castro "Boti", David Nanclares eta Sandra Fdez. Agirre

**Testua:** Mikel Pikaza eta Jon Koldo Vázquez

**Dramaturgia, eszenografia, jantziak eta txotxongiloak:** Laenanarananja

**Argiztapen diseinua:** Zigor Gorostiola

**Argiztapen teknikaria:** Victor Palacio

**Soinu teknikariak:** Jorge Perales

**Diseinu grafikoa:** Aritz Garcia

**Zuzendaritza:** Jon Koldo Vázquez

**Ekoizpena :** Mikel Pikaza

**Jatorrizko ideia:** Sandra Fdez. Agirre eta Mikel Pikaza